

**ERABAKIA, 2016KO UZTAILAREN 21EKOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ KONPROMISO BATZUK HARTZEN BAITIRA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN BETETZE, GARAPEN ETA APLIKAZIOARI BURUZ 2015EAN EGINDAKO EBALUAZIOAREN EMAITZETAN OINARRITUTA.**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen lehenengo xedapen gehigarria betez, Legearen bost urtean behingo ebaluazioa egin da (bigarrena).

Batzorde honek ebaluazioa osatzen duten txostenak (kuantitatiboa eta kualitatiboa) aztertu, eta onartu egin ditu, 2016ko uztailaren 21ean –Gasteizen– egindako bilkuran.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak, ebaluazioan jasotako datuak, hausnarketak eta ondorioak kontuan hartuta, aditzera eman du 4/2005 Legea oraindik ere tresna erabilgarria eta eraginkorra dela EAEko berdintasun-politiketan aurrera egiteko, eta berriz ere dio EAEko administrazio publiko guztien erantzukizuna dela emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea. Saio horretan bertan, hau

**ERABAKI DU:**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea osatzen duten pertsonak eta erakundeak, autonomia erkidegoko administrazioa eta foru-administrazioak ordezkatzeko dutenak behinik behin, nor bere eskumen-esparruan, konpromisoa hartzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko, osoki eta zeharka, haien esku-hartze publikoko eremu guztietan, politika horiek ardatz eta lehentasun izan daitezen haien agenda politikoetan. Bereziki, hurrengo bosturtekoari begira, konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko arau espezifikoak prestatzea, onartzea eta aplikatzea. Arau horien bidez egokitu eta zehaztuko dira berdintasunari buruzko legeetan jasotako agindu generikoak, lurralde historiko eta udalerrri bakoitzaren egoera kontuan hartuta. Hala erabaki zuen Batzordeak berak 2015eko abenduaren 18ko saioan.
2. Progresiboki handitzea administrazio publiko bakoitzean berdintasun-politiketara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa.
3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lanen gidaritza eta erantzukizuna hartzea eskumen-eremu bakoitzean, maistreaming-aren (zeharkakotasunaren)



- kultura indartzea ahalbidetzen duten prestakuntza eta bestelako neurriak sustatuz eta Herriak berdintasunaren aldeko konpromisoa duela helaraziz herritarrei.
4. Berdintasunerako teknikariak progresiboki gehitzea aipatutako administrazioetan.
  5. Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Planaren zabalkundearekin jarraitzea, hezkidetzako proiektu integralak dituzten ikastetxeak progresiboki gehituta.
  6. Behar diren beste baliabide bermatzea enpresetan eta antolakunde eta agente sozialetan berdintasun-planak indartzeko eta horien irismena handitzeko.
  7. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, berdintasunaren aldeko lana indartuz eta emakumeak ahalduentzeko eta balioak aldatzeko programak eta jarduerak bultzatuz.
  8. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeari dagokionez, nazioarteko tresna juridikoetan ezarritako kalitate-estandarrak erkidego osoan betetzen direla bermatzea.
  9. Lan-talde bat sortzea, zaintza-eskari gero eta handiagoa eta eman daitezkeen arreta-ereduak aztertzeke, hala nola, zaintzaren beharrari erantzun egokia eman ahal izateko erantzukidetasuna kontuan hartuta eta zaintzaren aitorpen soziala eta ekonomikoa bultzatuz, bereziki, zerbitzuen sektoreko lan-baldintzak hobetuz.
  10. Eztabaida publiko bat sustatzea, egungo eredu ekonomikoa eta horrek pertsona guztien eskubideak bermatuko dituen garapen iraunkor batean daukan eragina aztertzeke.